# BAROJA COLLET ARTEGINTZAN

Lehen begiratu batean edonorri harrigarriak irudituko zaizkigu Baroja Collet-en arte lanak, baina barne-gogoetaren ondorioak bultzarazten zaizkigun neurrian, bere sorketa eraginkorraren argi izpiak ikustera garamatza.

Juan Luis Baroja Collet, kezkatia eta nekatu ezinezko langilea dugu. Bere hasieretan, Eibarko artesautzaren gubil teknikaren bidetik joan zen. Han ikasi bai zuen lana gogoz eta ondo egiten. Eta esan beharrik ez dut, artegintzarako oso beharrezkoa dela lehen-lehenik langintza ondo betetzen ikastea.

Artista hau ez da geldirik egoteko jaioa, horregatik gerorantz, jakintza hortaz baliaturik igaro zen, alde batetik eskulturgintzara eta bestetik kalkografiazko grabatugintzara. Bigarren honetan lehengo teknika haietaz baliatuz, baina etenik gabe, irudimenezko formeri bide berriak ematen ahalegindu da. Era askotariko irudiak erabili izan ditu eta azken aldian txontxongilo gisako abstrakzioaren bidez, formak iradokiz bere lana gainditu joan da.

Hor nabari denez, mitologia gaiak maite ditu. Baina, bereziki, hutsune egonkorrean aurkitzez sinbologiaren ingurugunearekiko izatea, eneolitos garaiko cromlech edo harrespilak bezalatsu, irudiok soil soilik jarriz, non agertzen dituen sinbologiaren adierazpenak. Horrela erakutsi nahi digu euskal kontzientzia intelektualaren halabeharra, Oteitzak zioenari jarraituz.

Nire ustez, zuhaitz itxuran egin dituen irudiok, beraien burualdean era askotariko tresna itxurazko gauzak dituztelarik eta, haruntzago sakonduz, eguzki zein hilargi itxurazkoak ere bai. Horrela hornitzen ditu irudiok, mundura ez ezik zeru zabalera begira hurbiltzen gaituztelarik, gizakiak bere barrukaldetik betidanik dituen izatearekiko kezkak azaldu nahirik. Beraz, maila hortatik, ikuslearen barne-gogoetan zer pentsa adierazten dute.

Izan ere, arteak bere baitarik duen indarra, ekintzaz arituz eta denboraren jardunean, egikerak bultzaraziz sorkuntzara jarraituz garamatza, bere helburua hor duenezkero. Sorketa denez artearen gailurra. Eta hori bai da Baroja Collet-en irudigintza lanetan aurkitu genezakeena.

# EL SENTIDO ARTÍSTICO DE BAROJA COLLET

A primera vista, el trabajo artístico de Baroja Collet nos puede parecer extraño, pero a medida que meditamos, nos inducirá a las consecuencias, ya que su inquietante creatividad nos dejara vislumbrados.

Juan Luis Baroja Collet, es un trabajador inquieto e inagotable. Sus inicios partieron de la artesanía eibarresa en las técnicas del buril. No he de aclarar que dicha artesanía consiste primordial y necesario el aprendizaje de la buena ejecución en el tratamiento de la materia.

Es innata la inquietud en este artista, y de ahí partiría para avanzar valiéndose de ese saber, por un lado en los trabajos de escultura y por otro en el grabado de la calcografía. Para esta segunda parte le valieron aquellas técnicas e ininterrumpidamente, se ha empeñado en nuevas formas imaginativas. Ha utilizado diversidad de imágenes últimamente a modo de marionetas por la vía de la abstracción, en la medida que ha ido sacando dichas formas en el desarrollo de su trabajo.

Baroja Collet nos deja entrever su amor a temas mitológicos, pero, sobre todo, en el entorno a la quietud y el vacío hallaremos su simbología existencialista, de manera similar a los cromlech del eneolítico, exponiendo la soledad de las imágenes, con las que viene a mostrar el simbolismo. De esa manera pretende acercarnos a la conciencia de la intelectualidad vasca siguiendo los criterios de Oteiza.

En mi opinión, al contemplar las imágenes que presenta a modo de árboles solitarios, mostrando sus diversas cabeceras en formas semejantes a herramientas, hallaremos también las imágenes solar y lunar al profundizar la meditación. Es la corriente que nos suministra a través de las imágenes, no solo acercándonos a este mundo que habitamos sino también al espacio cósmico, mostrándonos la inquietud existencial que desde siempre ha sido la verdadera preocupación del ser humano. De modo que desde ese nivel de contemplación nos induce a pensar.

Hay que añadir que la obra de arte conlleva energía, a base de hacer y el transcurso del tiempo, pues el empuje del hacer nos lleva al sentido creativo, como lo es su propia finalidad. Por ello es la creatividad la cima del arte. Y es ahí donde podemos hallar, en sentido artístico, la obra de Baroja Collet.

*Juan San Martín*